


Aretxabaleta,
1994eko abenduak 9

Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

MECATRONIC
DE AZBE



MECATRONIC, iraultza zerrailgintzan



• San Migelko
etxeak

• Pavel Fenjuk
akordeolaria

• Atxabaltako
alde-zaharra
berrizten



3. Boteprontoan
H.I.E.S.ren eguna.
4. Hamabostean behin
Atxabalta ere intsumisoa.
5. Hamabostean behin
Kurtzebarri eskolaren ekintzak.
8. Hamabostean behin
Futbol-zelai berria.
9. Hamabostean behin
San Martin-San Jose kofradia.
- 10-11-12. Erreportaia
13. Kirolak
Jubenilak gogor.
18. Hurretik
Mikel Egizabal.
19. Apuntetako

H.I.E.S.ari ihes egin

Zerbait berririk ekarri ote dau
H.I.E.S. gatzaren egunak?
geurera ere helduko dira
bere eraso astunak?
noiz arte entzun behar ditugu
negarraren oihartzunak?
galdera asko, erantzun gutxi
daukagu hemen, lagunak !

Erantzun onak eta bakarrak
badaukou pare bat edo,
hau gatz bat data, ez mendeku bat
nahiz sortu hainbat endredo
informazio ona lehenik
eta maitasuna gero
beste bakuna milagrosorik
oraingoz ez da espero.

Jon Sarasua

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian
Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Alberto Garro
Kolaboratzaileak: Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Ion Antxia, Loramendi K.E., Udala. **Inprimete-
gia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege
gordailua:** 55378/94

H.I.E.S.ari buruz informazio nahikoa dugu?




Fidel Iturbe
(Langilea)

Jendea gehiago arduratu behar dela uste dut. Zihur ez daudenak, medikuarengana joan behar ko lirateke, espezialista batengana. Donostian adibidez, H.I.E.S.a tratatzeko toki bereziak daude.



Begoña Martínez
(Etxekoandrea)

Gazteak ondo informatuta daudela deritzot. Arazo bakarra, guri inoiz ere ez zaigula gertatu behar pentsatzen dugula da. Gaixotasuna hor dago, eta jendea mentalizatu egin behar da.



Benito Labrador
(Langabezian)

Gaixotasun honi buruz informazio gehiago eman behar da. Sexu harremanetan, preserbagailua erabiltzea beharrezkoa da eta jendea kontzientziatu gaixotasuna hor dagoela.

KARTAK

Maltzaga-Urbina?-Foronda?-Langraitz?-Margarita?

Garbi dagoen bakarra Maltzagan hasi edo bukatuko dela, eta Debasa elkarteak dioenez autopista bat izango dela, nahiz eta autopistaren aldekoak %15 besterik ez izan eta, aldiz, %80ak egungo errepidea hobetzea nahi izan.

Prozesu hau martxan jarri zenetik, hamaika azpijoko eta gairik eginiko gauzeekin topo egin dugu. Guztiok Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan eztabaidatzen geunden bitartean, zenbaitzuk beste lotugune batzuk "proposatzen" zituzten. Lehena Alberto Ansola izan zen (E.A.J. alderdiko eleduna; Arabako Diputatu Nagusia), "autopista Forondaraino eraman behar da"; ondoren P.P. eta U.A.koek Armiñon-

go lotura historikoa bultzatu zuten. Azkenik eta denbora gutxitik hona, beste hiru lotugune azaldu dira: Langraitz, Margarita eta Etxabarri Viña. Azkenean, eta Debasak publikoa egin duenez, autopista Etxabarri Viñaraino luzatuko da. Honela, ardatz berri baten aurrean aurkitzen gara: Urbina-Etxabarri Viña ardatza hain zuzen.

Gezurretan ibili dira, datuak izkutatu dituzte, sasi-eztabaida herritar bat jarri zuten martxan azkenean eurek nahi zuten guztia egiteko. Non gelditzen da politiko hauen etika eta moralak? Autopistaren "helmuga" ezagutzeko aukera izan dugun aste berrean, Bruselastik heldu den berria ere ezagutu dugu:

"Europako Batzordeak ez du Estatu Espaniarrak proposatzen dituen azpiegitura obra guztiak finantzatu nahi". Batzordearen asmoa %25arekin laguntzea da. Aldiz, Estatu Espaniarrak %50a nahi du.

Gogoratu U.A.G.A., Nekazari eta Abeltzaintza sindikatu arabarra, luzapen honen aurka dagoela, lur emankorrenak txikitu baitlituzke.

Eta dirua, zer? Maltzaga eta Urbinako zatiari, 80.000 milioiko aurrekontuari, zati honen gastuak gehitu behar zaizkio, 20.000 milioi. Beraz, orotara 100.000 milioiko aurrekontuari egin beharko diote aurre, Europako diru laguntzaren murrizketa posibleari egin beharko dioten bezela.

Eguzki

Zazpigarren eskaparate lehiaketako oinarriak

1.- Lehiaketa honetan, Atxabalako denda guztiak parte hartu ahal izango dute.

2.- Erakusketa datak, abenduak 15tik urtarrilaren 6ra bitartean konprendituak izango dira, bi hauek ere barne direlarik.

3.- Sariak emateko garaian, imaginazioa kontuan hartuko da, originalitatea eta gabon mezua-ren afektibitatearen kalitatea ere kontuan hartuko da.

4.- Eskaparateetan, saltegi horretan salmentan, ohizko diren artikulua agertuko dira.

5.- Epaimahaia, Udal Kultura Batzordeko kideez osatua izango da.

6.- Sariak, sektoreak kontuan hartu gabe, orokorrean emanak izango dira:

- 1. go saria 35.000 pzta eta plaka.
- 2. saria 25.000 pzta.
- 3. saria 15.000 pzta.

7.- Epaimahaiaren epaitza, apela ezina izango da, eta abenduaren 31 baino lehenago argita-

ratuko da.

8.- Epaimahaiak, berari horrela iruditzen zaizkion sariak hutsak jotzeko ahalmena izango du.

9.- Lehiaketan parte hartzeak, oinarriak onartzea suposatzen du.

Oharra: Lehiaketa egunetan, eskaparateak, lan egunetan izteko ordurarte, eta jai egunetan eta jai bezperetan, gaueko bederatzia arte, argituak egon daitezkeen komenigarria litzateke, epaimahaiaren lana errazteko.

Atxabalta ere intsumisioa

Aretxabaletako zenbait gazte talde antimilitarista sortu berri dute.

Azken urte hauotan Eukal Herrian intsumisioak jasan duen bilakaerak bere islada izan du Aretxabaletan. Gaur egun, hogeita hamarren bat atxabaltar dira soldaduzkari uko egin eta beraien burua intsumisio gisa aurkeztu dutenak, hauetatik seik epailearen aurrean deklaratu dutelarik

jadanik.

Gertakizun hauen aurrean, zenbait ekintza burutu izan diren arren, beraien helburu nagusia, ekintza hauei jarraipen bat ematea da. Aurrerantzean, izango diren intsumisio berriak, epaiketaketan kontuan izanik, elkarrekin biltzeko erabakia hartu dute.

Hala ere, beraiek adierazi dutenez, intsumisioa antimilitarismoaren barne dagoen espresio

bat besterik ez den eanean, militarismoaren aurka dauden herriko gazte edo ez hain gazte guztiak animatzen dituzte, ostiralero arratsaldeko 7etan kultur aretoan egingo dituzten bileretan eta hile bakoitzaren azken igandean egingo diren enkarteladetan parte hartzea.

Gazteen laguntzari esker, egiten duten lanaren ordaina jasotzea espero du talde honek.

MASAILARIK


MASAIK ZARIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83



IBARRA
ESTANKOAK

Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Kurtzebarri eskola giza baloreak lantzen

Abenduaren 13an, Kurtzebarri eskolak antolatu dituen ekintza kulturalak hasi ziren.

Gaurtik aurrera izango den ekintzen egitaraua hau izango da:

Abenduak 15 (eguna)

Eguena eta eguakotxean, JOSTAILU BILKETA egongo da beharrean dauden haurrei bideratzeko.

Arratsaldeko 6etan gurasoei zuzendutako hitzaldia. Gaia: "Autoestimaren garrantzia haurraren hezkuntzan".

5 urteko haurrek herriko li-

burutegiak antolaturik, ipuin kontaketara izango dute.

Abenduak 16 (eguakotxa)

"Ekologia eskolan" izenburupean erreflexio eguna.

Abenduak 19 (astelehena)

6., 7. eta 8. mailakoek "Kirolez Kirol" saioa izango dute.

Moderatzailea: Asier Aranguren

Partaideak: Joseba Larrinaga, Igor Arenaza, Kamila Jauregi, Jasone Diaz de Guereñu eta Asier Guenetxea.

Arratsaldeko 6,30etan gura-


soei zuzendutako hitzaldia. Gaia: "Ekologia etxean".

Abenduak 22 (eguna)

"Gabon jaia" eskolako haur guztiei zuzendua (jolasak, Gabonetako abestiak, Olentzeroren laguntzailea, txistorra jana...). 8.mailako ikasleek antolatuko dute guraso elkartearen laguntzarekin.

Abenduak 24 (zapateria)

Aurreskolako haur, irakasle eta gurasoek kalez-kale Gabon Kantak abestuko dituzte herriko txistulariekin batera.




Deba Garaiko II. Kirol Tokapetak izango dira Oñatin.

Abenduak 20 eta 21ean izango dira Santana antzokian. Ekintza hau Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak antolatu du. Lehenengo egunean, hau da, abenduaren 20an, gaia "Eskola Kirola" izango da. Hurrengo egunean, abenduak 21, "Kirol Taldeak" izango da aztertuko den gairik nagusiena. Informazio gehiago nahi duenak Kirol-Etxera jo dezake.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA
Otalora kalea, 4
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

**Oraindik ez baduzu Gabonetarako oparia erosi,
ezin duzu aukera hau alperrik galdu!**

REFLEX KAMARAK

MINOLTA 3 Xi	Obj. 35-70	69.900
MINOLTA 500 si	Obj. 35-70	79.900
MINOLTA 500 si	Obj. 70-210	123.000
MINOLTA 500 si	Obj. 35-70	123.000

PRISMATIKO TXIKIAK

MINOLTA 8 x 22	19.900
MINOLTA 10 x 25	21.500
NIKON 7 x 20	7.500

KAMARA KONPAKTOAK

PENTAX 200 M	M38-70	25.000
PENTAX 200 M	M 30-70	55.000
PENTAX ESPIO	110	56.500
PENTAX ESPIO	115	59.900
SAMSUNG FF	222	7.500
CANON JUNIOR-5		7.500
SANSUNG AF	333	10.900
NIKON AF	200	12.500

NOVAMAT PROIEKTOREAK

515 AF-T	20.500
515 AF	15.900
515 AF PANTAILA	26.500


Albumak 100 pztatik. aurrera lor ditzakezu...

...eta hurrengo urtean ezkontzeko asmoa baduzu,
irakurri eskaintza hau: zure ezkontzako argazki edo
bideo-erreportaia urtarrilaren 31 baino lehenago
eskatzen baduzu, dohainik lortu dezakezu.

ZORIONAK ETA URTE-BERRI ON

LASO-ARREGI

San Migel-eko etxeei buruz zurrumurru ugari



Udalak, 1991ko apirillean, aurkeztutako proiektua

1991ko apirillean, Udalak San Migel zonaldean babes ofizialeko etxebizitzak egiteko proiektu bat atera zuen. Etxebizitza hauek baliabide gutxiago zuten familientzat pentsatuak zeuden eta lurra 75 urtetarako emango zen, gero erosteko aukera edukiz. 216 izan ziren proiektu honetarako izena eman zuten lagunak. Aukeraketa egiteko puntuazio sistema bat prestatu zen, bakoitzaren egoeraren arabera, eta puntuazio altuena lortzen zuten lehenengo 28 familiek izango zuten etxebizitza hauek erosteko aukera, beste 28 fa-

milia ordezko zerrenda batetara pasatuz.

Aukeratutako 28 familiek Kooperatiba bat sortu zuten, honen abantailak aprobetxatzeko, eta ASESA aholkularitzarekin hasi ziren lanean. Hasiera batetik oztopo asko aurkitu zituzten proiektu hau aurkera ateratzeko.

Etxebizitzetatik kanpo, garajeak egiteko bi solairu egiteko aukera zegoen, bata bertako auzokideentzat eta bestea salmentarako. Udalak, bigarren

solairu hau erosteko zenbat jende zegoen prest jakiteko, inkesta bat egin zuen eta hasera batetan 60 bat pertsonak euren adostasuna eman zuten. Hau ikusita, Kooperatiba honetako bazkideek, bigarren solairua egiteko erabakia hartu zuten eta lortutako dirua, etxebizitzak finantzatzeko erabili.

Halako batean, garajeak erosteko prest zeudenak iritziz aldatu ziren eta momentu honetan plaza asko daude saltzeke. Honen ondorio nagusia, Kooperatibako bazkideek jasan behar duten gastu finantzarioak dira: alde batetik, etxebizitzaren kalitatea, hasiera batean esandakoa baino hobea izan da, eta beste aldetik garajeak ez saltzeak, gastuak ere haunditu egin ditu. Beraz azkenean, etxebizitzaren balioa aurrekontuetakoa baino garestiagoa izan da. Esan beharra dago, eskatutako maileguren interesa ere nabarmen jaitsi dela, beraz azkenean, pisuak prezio aldetik baldintza egokitan atera dira.

Bukatzeke, esan behar da ASESA eta Kooperatibaren aldetik ez dagoela inolako arazorik, baliteke guzti honen azpian bestelako interesik egotea.

SAGASTA

ELEKTRIZATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10

IRKLU

**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A**

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55

Atxabaltako Futbol-zelai berriari buruz, Udalaren azken hitza



Arazo guztiak alde batetara utziaz, futbol-zelai berria aurrera doa

1994ko apirilaren 21ean, Atxabaltako eta Eskoitzako Udaletako ordezkariak, Eskoitzan premiazko bilera egin zuten. Helburua, Atxabaltako futbol-zelai berria egiteko zegoen diru-laguntza lortzea zen. Hori lortzeko, Diputazioaren aurrean, futbol-zelaia mankomunatu bezala agertu behar zen. Bilera horretan, Santano diputatua egon zen hitzarmenaren lekuko.

Diputazioa diru-laguntza

emateko prest zegoen, bi Udaltako plenoetan sinatutako hitzarmena onartzen zen neurrian.

Arazoak diru-laguntza banatzerako orduan sortu dira. Eskoitzako Udalak, diru-laguntzaren %50 eskatzen du eta horrez gain, futbol-zelaia erabiltzeko eskubidea, bestela ez dute Udaleko plenoan hitzarmena onartuko eta diru-laguntzak alde egingo du. Dagoeneko, aurten plenoan onartzeko epea amaitu da eta diru-

laguntzarik gabe gelditu da Atxabaltako Udala. Hurrengo urteari itxaron beharko dio.


Atxabaltako Udalaren ustez, Eskoitzako Udalak ez du ezer eskaini, eta ezer jarri gabe diru-laguntzaren %50 jaso nahi du eta gainera futbol-zelaia erabili.

Dena dela, U.D.A.rekin aurrez sinatutako hitzarmena betetzeko asmoa du Udalak eta azkenean, Atxabaltak futbol-zelai berria izango du.

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87



EGUZKIGRAF

**Aldizkariak
Inpresokak
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxa 943-79 29 41



Abenduak 4an, domeka, Pavel Fenjuk akordeoilaria izan zen Atxabaltan. Kiev-en jaiotako gazte honek, akordeoi kontzertu bikaina eskaini zuen bildutako atxabaltar guztien aurrean. Jende ugari bildu zen Atxabaltako parrokiari eta txalo ugari eskaini zioten Ukrainiarrari. Pavel Fenjuk, Kiev-eko Musika Eskolan burutu zituen bere ikasketak eta doagoeneko sari ugari lortu ditu musika munduan.

San Martin-San Jose kofradia

Atxabaltako San Martin-San Jose kofradiak, abenduak 8an, urteko batzar orokorra egin zuen Kurtzebarri eskolan. Aztertzeko gaiak hauek izan ziren:

- Aurreko Batzarraldiko aktaren irakurketa.

- Ekintza Txostena.

- Kontu balantzea.

- Zuzendaritza Taldearen berriztapena.

- Eskari eta galderak.

Puntu guzti hauei buruz eztabaidatu ondoren, eguerdiko

12etan, hildako anaideen aldeko meza izan zuten Atxabaltako Parrokian.

Kofradia honen zuzendaritza batzordearen konposamena hurrengoko hau da:

Urten dutenak

Angel Zubiria

Luis A. Gabilondo

Jose Martin Axpe

Ignacio Lopez de Uralde

Irauten dutenak

Agustin Aginagalde

Pedro M. Alzola

Juan Orobengoa
Pablo Txintxurreta

Utzi dutenen orde, 4 batzarkide izan ziren hautatuak. Hasiera batean, 6 lagun zeuden hautagai eta azkenean, jasotako botuen arabera, beltzez agertzen direnak izan ziren aukeratuak:

Luis M. Zabalo

Manuel Davila

Carlos Gutierrez

Jesus Etxebarria

Iñaki Arana

Jose Zubizarreta

**HAIZEA
AKEITEGIA**

Mitarte Kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

;Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Orain arte, osagai elektronikoen eta mekanikoen arteko osaketa gaindiezinezko ikasgaia izan zaio gure zerrailagintzari.

Atxabaltako AZBE lantegiak asmatutako Mecatronic izeneko zilindroari esker (mekanika eta elektronikak osatutako zilindroa), seguritateari dagokionez garrantzi handiko pausu bat eman da. Hain zuzen, zilindro hori osatzen duten osagaien ezaugarriari esker, giltza-sistema kopiaezina lortu da.

Hemendik aurrera, ezinbesteko erreferentzi-puntu izango da zerrailagintzan seguritate-arloan.


Hona, bada, AZBEko gerente den Luis Zubiaren hitzetan, sistema berri honen ezaugarriak.

Egoeraren historia


Orain dela 15 urte inguru "boom" baten aintzindariak, lehenak izan ziren AZBE Estatu mailan. Alemaniako enpresa batek zilindro baten patentea eman zioten, seguritate-zilindro bat. Handik gutxira, prezioak ere 8

aldiz aldatu behar izan zituzten, arrakasta hain handia izan baitzen. Alpakazko giltzak ziren, ez betiko burdinezkoak. Hasieran, 500 pieza ekartzen zituzten Alemaniatik, eta handik gutxira 10.000-12.000 pieza ekartzera heldu ziren. Denbora aurrera joan ahala,

AZBE hasi ziren giltza horiek egiten. Gaur oraindik horretan dihardute. Harez geroztik beste produktu batzuk merkaturatu dituzte, eta saldu ere ondo saldu dira. Hala ere, Luis Zubiak zuzentzen zuen taldeak beste zerbait zuten buruan.




MECATRONIC, MUNDUKO LEHEN GILTZA-SISTEMA KOPIAEZINA



PROIEKTUAREN HASTAPENAK

Esan bezala, Luis Zubia-
ren buruan beste zerbait
zebilen bueltaka: nola da
posible erloju bat hain
perfektoa izatea eta hain-
beste informazio eman:
orduak, gorputzaren ten-
tsioa, ilargiaren zikloak, etabar.
Duela 3 bat urte, horrelako erloju
konplexu bat ikusteko aukera
eduki zuten AZBEkoek, eta
orduak konturatu ziren erronka
serio baten hasieran zuedela: "gai
izan behar dugu zilindro batean
elektronika sartzen". Aholku bila
Ikerlan-era joan ziren, eta hainbat
ikerketa egin ondoren, proiektua
bideratu zitekeela ikusi zen.
Bideragarritasunaz oharturik,
hurrengo pausua mikroelek-
tronika ezagutu eta menperatu
egiten zuen norbaitengana joatea
erabaki zuten. Horrela Suitzako
Institutu batera joan ziren
proiektua azalduz. Hiru urteko
lan nekezaren ostean, azkenean
lortu egin dute zilindro batean



"erloju" bat sartzea. Egia
esateko, oso perfektuak dira lan
egiten, bestela ez dute konpro-
misorik hartzen.

LUIS ZUBIA:

**"Suitzako Institutu
batera joan ginen
zilindro batean erloju
bat sartzera, eurek lan
egitean perfekzioa
bilatzen dutelako"**

Zilindroaren eskusiba AZBEk
duen arren, guztiz estandarizatuta
dagoen perfil batean sar daiteke.
Beraz, bere funtzionamendua oso

erraza da.

SISTEMAREN OSAGAIK

Sistemaren ezaugarriak esangu-
ratsuena zera da, bakarrik
elektronikoki identifikatuta
dauden giltzak zabaldu dezakeela
zerraila bat edo beste, beste inork
ezin du zerraila bat manipulatu.
Hala ere, funtzio hau ez-operatibo
bihurtzen denean, ohizko
seguritate-sistema mekanikoa
martxan hasten da.
Mecatronic seguritate-sistema
honetan, zilindroak 4 giltza
zulodun dauzka eta beste
zulobako bat. Azken hori da
"giltza maisua" izenarekin
ezagutzen dena, eta bide batez
beste lau giltza horiek operatibo

bihurtzen dituena. Elektromekanikari dagokionez, prozesua martxan ipintzen da "giltza maisu" horrek pertsonalizatu egiten dituelako gainerako giltzak, bakarrik horiek identifikatzen dituelako. Honen ondorioz, giltza hauek guztiz kopiaezkinak dira, zeren eta giltzak pertsonalizatu egiten dituen giltza berezi horri esker, bakarrik erabiltzaileak berak anulatu ditzake galdutako edo lapurtutako giltzak.

Giltza bat operatibo izateko, hasieran "giltza maisua" birritan sartu behar da zilindroan, eta horren ostean erabili nahi diren lau giltzak. Zilindroak duen ordenagailuak, abisu bat ematen

du pilak gastatzen hasten direnean: giltzak ez du lehenengoan atea zabaltzen. Pila hauek, momentuz, 3 edo 4 urte irauten dute.

LUIS ZUBIA:

"Ikerketak iraun duen 3 urteetan, 90 milioi pezeta inguru gastatu ditugu"


Giltza, beraz, kopiaezina da, giltza maisu hori sartu ez ezker. Zilindroa ate barruan dagoela, ez da antzematen, ez da ikusten seguritate-zerrailarik duenik. Mundu osoko lantegiak dabilta

giltza-eskaerak egiten: Frantzia, Belgika, Ingalaterra, Italia, Alemania, Errusia, etabar.

AZBEren salmentak bikoiztu egin dira azkenengo urteotan. Giltza hau merkatura ateratzeko, ordu eta inbertsio handiak egin behar izan dituzte. Horrela, hiru urte ibili dira jo eta ke ikerketak egiten eta 90 milioi inguru gastatu dituzte proiektu honetan.

Dena dela, merezi izan du horrenbesteko lana egitea eta orain oso harro daude lortutako giltzarekin. Lortu dituzten emaitzak ikusi ondoren, beste edozein proiekturi aurre egiteko prest daude.

Gaur egun, 97 langilek osatzen dute AZBEko plantila.





Atxabaltako jubenilak gogor

Aurten, jubenilek oso hasiera ona eman diote denboraldiari.

Momentu honetan 1go postuan doaz, Bergarako taldearekin berdindurik. Badirudi, beraz, aurten maila honetako gazte-txapelketa inguru honetan geldituko dela. Ea bertan gelditzen den.

Taldearen entrenatzailea Juan Jose Etxebarria dugu. Aurten talde hau zuzentzeko ardura hartu du eta momentuz oso lan ona egiten ari da.

Talde hau, argazkian agertzen diren 16 jokalariek osatzen dute eta honako hauek dira:

Goitik eta ezkerretik hasita: Gaizka Peñin, Iñigo Garate, Ibon Arriola, Iker Zubiria, Iker Serrano, Kepa Zubizarreta, Iñigo Labayen, Gorka Etxebarria, Mikel Mendiaratz, Xabier Lasagabaster.

Behean eta ezkerretik hasita: Eneko Elkorobarrutia, Kepa Bengoa, Unai Armendariz, Ekaitz Arrese, Egoitz Garai, Aritz Zubizarreta.

Iker Zubiria, 17 urtetako atxabaltarra, Atletikeko gazte mailan aritu zen aurreko urtean. Famili baten etxean egon zen, Igor

Arenazarekin batera eta Deustun jarraitu zituen bere ikasketak. Berekin egon gara berriketan:

• **Ezberdintasun asko igerri dituzu hemengo eta Bizkaiko ligaren artean?**

Egia esan, maila haundiagoa espero nuen. Ez dut kalitate aldetik ezberdintasun handirik ikusi; beharbada, Bizkaian seriotasun gehiagoz lan egiten dela.

• **Ze nolako giroa aurkitu zenuen?**

Jatorra. Lagun asko egiteko aukera izan dut.

• **Jolasteko aukera asko izan dituzu?**

Bai. Urtean zehar asko jolastu nuen. Gainera, nahiko denboraldi ona egin genuen eta partidu bat bakarrik galdu genuen.

• **Nola ulertu daiteke, beraz, Atxabaltara bueltatzea?**

Taldeko asko bidali gaituzte. Niri emandako arrazoiak, triste nabilela eta segurtasun falta izan ziren, baina ez nago ados.

• **Berriz bueltatzeko itxaropenik baduzu oraindik?**

Ez. Nire ustez, Bizkaia aldean egin dudana etapa pasatu da.

• **Athletikekoa ala Errealekoa?**

Errealekoa noski.

LASA-AGUILERA

Aholkularitza


Andra Mari Auzunea,3

☎ 79 29 26

ARETXABALETA

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79

ARETXABALETA

Izen larregi



J.J. Aretxaga

Aste arraroa benetan. Ez dakigu zein den asteguna eta zein jaieguna; asmatu ezinik gabiltza. Konstituzino eta kontsezino, horrela ez dugu aurrera egingo.

Aurrera egingo dutenak herriko musikoak dira. Zubia edo dena delakoa aporbetxatuaz, urteroko moduan, aurren be Gipuzkoako akordeoi lehiaketan antolatu dute Mondragoen. Lehiaketan atxabaltar askok parte hartu du. Benetan asko izan dira eta ez dakit nondik hasi. Nagusienetik hasiko naiz, irakasleak aitatuz. Lehenengo irakasleak: **Luis Mari Elkorobarrutia, Juan Jose Orobengoa eta Agurtzane Aseginolaza.** Euren ikasleek, barrez, denek irabazi dute zerbait. Brontzeko domina: **Nerea Uribetxebarria, Izaskun Bengoa.** Zilarrezkoa: **Larraitx Antxia, Jone Lezeta, Nerea Trigo, Idoia Zilaurren, Alexander Azkargorta, Maialen Miranda, Oier Bernal, Uxue Zamalloa, Nagore Custodia, Maider Revalo, Aitziber Arenaza eta Estibalitz Kruzeta** eta **Naiara Akizu** bikotea. Urrea: **Iurre Olaizola, Ianire Davila, Nerea Arrese, Aitziber Kintani-**

la, Alexander Herranz, Nerea Lete eta Ibon Elordui. Baina hau ez da akabatu. Junior mailan seigarren postua lortu du **Aiora Filarmendik.** Infantiletan bigarrena **Ainara Jorge** geratu da. **Oihana Alejolaleibak,** barrez, epaimahaiaren aipamen berezia. Ikusten duzue ez zen guzurra. Atxabaltan akordeoiak etorkizun handia du. Akordeoiaren inguruan jende asko mobiduten da eta horretan dabilzanak asko mobiduten dira. Gabonetarako be sorpresatxoarekin prepartan dabilta, baina hori hurrengorako utziko dut, gaurkoz nahikoa da.

Lehiaketekin jarraituko dugu. Baina hau gozagoa da. **Eduardo Altubek** Deba Garaiko bakailo txapelketa irabazi du. Errezeta eskaketan joan gara, baina sekretoak dela esan digu. Lastima.

Samurragoa da hauek egin dutena. Telefonoa hartu eta **Jon Otxoak** San Mamesen (edo Anoetan, ez dakit) partidu bat ikusteko sarrera bi irabazi ditu. Pelotakada edarra "Pelotazo" izeneko programari esker. Atzeratuen aldeko zozketak be badu irabazlea. Otzara galanta eroan du **Jabi Mantekak** etxera.

Utzi ditzagun lehiaketok eta gatozen beste barri batzuetara. Euskaldun barriek sortutako barria da hau, **Berri-zahar eguna.** Igaz hasi ziren egun hau antolaketan. Euren asmoa, barriak eta zaharrak alkar ezagutzea da. Barri bidea samurketako edo, euskaldun barri jakina.


Eta akabetako gai serioa. Lehengo egunean **Miriam Urkia** atxabaltarrak atzekoz aurrerako hiztegia aurkeztu zuen Bilbon. Herriko bertsolariendako be balioko duena. Seguru.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Larunbatean, Abenduak 2, zoritxarreko albisteak esnatu gintuen. Ezaguna. Laguna. Atxabaltarra. Abertzalea. Gizona hil zitzaigun. Denok ezagutzen genuen. Guztion laguna zen. Heriotzak ez du bereizten. Tokatzen denean, zoritxarrez, bertan agertzen da.

Joxe Kruzen izatearen isladapenak hiru izpi nagusi izan zituen:

Gizona eta lana. Kooperatibismoaren aintzindari eta bultzatzaileenetarikoa bat izanik.

Gizona eta Atxabalta. Bere bizitzaren hiru urte gogor, latz eta garrantzitsu, bere herriaren alde emanaz. 1976-1979 urtetan, Alkatea izan baitzen.

Gizona eta Euskal Herria. Bergarako Alkatea taldeko partaide izanik, 1977ko urtarrilaren 19an Atxabaltako Herriko Plazan ikurriña jaso zuen, lehen aldiz (gerra ostean).

Argazkia ordukoa da.

Ezkerretik hasita: Justino Zaloña, Jesus Aspiazu, Joxe Olabe, Joxemari Elkoro, Antton Mtez de Agirre (idazkaria), Angel Garmendia (parrokoa), Joxe Kruz Etxeberria (Alkatea), Pedro Etxebarriarteun, Bixente Zubia eta Alberto Uribetxebarria.

Dantzari jantzita agertzen diren umeak, ezkerretik hasita, Arantzazu Urzelai, Aitor Sarasua, Pello Olabe (ikurrina eusten ari dena), Edurne Zuazabeitia eta Maite Urzelai dira.

Agur t' erdi

Joxe Kruz

eta ohorea zuri.

**Dotore jarri eta mahaiaz presumitu
sosik gastatu gabe.**

Eta zortea baduzu, aberastu egingo zara.

Dotore jarri. Zaindu ondo detaileak.
Manacor Perla Jokuarekin: 24 kilateko
urreaz txapatutako Lepokoa, Eskuturrekoa
eta Belarritakoak, 5 urteko garantiarekin.

Eta jantzi zure mahaia. Lagun batzuk edo
nahi duzuna gonbidatu. Eta mahaiaz
presumitu. Zeramikazko Baxera
Italiarrarekin: dekoratu aldaezineko luxuzko
20 pieza.

Lortu ezazu dena, sosik ere gastatu gabe.
Aurreztu egingo duzu gainera: etor zaitez
Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletara
eta diru-sarrera egin.

Manacor Perla Jokua:
175.000 pta. 2 hilabeterako.



Zeramikazko Baxera Italiarra:
275.000 pta. 3 hilabeterako.
375.000 pta. 2 hilabeterako.


Gainera, joka ezazu doan Gabonetako
Loteria! 200 pta. ko partaidetza oparituko
dizugu ezarpena egitean.

Eta gogora ezazu! Ezarpenaren epea
bukatzenean, Superlibretaren edo Super
55 Libretaren interes handia jasoko duzu.

Informazio gehiagorako, deitu
901-333 444 zenbakira.

Promozio hau izakinak bukatzen diren arte izango da eta
loteria abenduaren 17ra arte banatuko da, baldin eta
promozioak jarraitzen badu.

Superlibreta.
Super 55 Libreta.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ERNE BAZKIDEOK:
Gabonak datozela eta, hurrengoko alean izugarrizko otar bat zozketatuko du Aretxagazetak. Bazkide izan beharko duzu zozketan parte hartzeko. Oraindik ez bazara, azkar ibili!



▼ Hurrengoko alean zozketatuko den otar zozgarria irabazteko, argazkian agertzen den atxabaltarra nor den asmatu beharko duzu.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen.

▼ Aurreko zenbakiko erantzunak:

- Gazte-Kontua
- Super-55 libreta
- Arrasate

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, **Jabier Ayastuy** izan da.



Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?



Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tfnoa:



Izena: Mikel Egizabal
Ofizioa: Abadea
Afizioa: Jendearekin egotea
Misioa: Alai bizitzea

1.- Non jaio zinen?

- Lasarten.

2.-Zenbat urte daramatzazu Atxabaltan?

- Lau urte dagoeneko.

3.-Noiz konturatu zinen zure bokazioa abadetzarako zela?

- Aurreneko aldiz 12 urte nituela eta gero 17-18 urtekin.

4.- Gogorra egin zitzaizun bide hau aukeratzea?

- Hasiera batean kostatu zitzaidan, baina orain pozik nago hartutako erabakiarekin.

5.- Betiko abadearen irudia aldatu duzu?

- Nire ustez, gizartea da aldatu dena. Ni, moldatu egin naiz gaur egungo egoerara.

6.-Abadeak ezkontzea

ondo iruditzen zaizu?

- Bakoitzak ikusi beharko du. Abadea izateko beste era ezberdin bat da. Zelibatoa onartu behar da eta gero, liberatu bezala bizitzeko aukera dago.

7.- Neska lirain batez enamoratuz gero, zer egingo zenuke?

- Ez dakit. Orduan ikusiko nuke zer egin, baina bietatik bat aukeratuko nuke, abadetzat edo ezkontzat.

8.-Zein da zure afiziorik nagusiena?

- Jendearekin elkartzea eta berriketan egitea.

9.- Gabonetan loteria tokatuko balitzaizu, nola gastatuko zenuke?

- Lehenengo, nire zorrak or-

dainduko nituzke. Etxekoei ere laguntza bat emango nieke eta beste guztia, eliz-barrutiaren kontu utziko nuke.

10.- Zer eskatuko zenioke gaur egungo gizarteari?

- Elkar entzuteko gaitasuna. Barre gehiago egitea eta harrokeriak alde batetara uztea.

11.- Jende asko joaten da pekatuak aitortzera?

-Bakarkako aitortza gutxi egiten ditut. Dena dela, lehenengo, abadearengana joaten zen jendea eta orain, aldiz, psikoloarengana.

12.- Eta zuk egindakoak nori kontatzen dizkiozu?

- Nik ere baditut noski, baina beste abade bati kontatzen dizkiot eta ez psikologoari.

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

ARETXABALETA

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16

Tfnoa: 79 23 43

17 ZAPATUA

- **Berri-zahar eguna.** Arratsaldez kuadrilen arteko jokuak izango dira. 7etatik aurrera triki-poteoa. 9etan afaria izango da eta bukatzeko, erromeria.

18 DOMEKA

- Kapirixo taldeak antolatuta irteera: **Angiozarreko enparantza (goizeko 9etan)-Elizamendi-Asensio-Partaitti-Angiozar.**

21 EGUAZTENA

- Murruxiko M.E.ak antolatuta, **argazki erakusketa** egongo da Udaletxeko ganbaran.

22 EGUENA

- 22an hasi eta 24era arte, **liburu azoka** izango da Loramendi K.E.ko lokalean.

24 ZAPATUA

- Arratsaldeko 6,30etan **Olentzero**, Ortzadar taldearen laguntzarekin.

26 ASTELEHENA

- 26 eta 27an **ur jokuak** egongo dira Kirol-etxeko igerilekuan.

- 26tik 30era, Kirol-etxean goizeko 9etatik 10etara **Badminton** eta 10etatik ordu letara **Olinpiadak**: Futbito,

Badminton, Dardo jurtiketa, Ping-pong, Mountain-bike, Squash, pilota.

27 MARTIZENA

- Herriko kaleetan zehar **Umeentzako tren**a.

29 EGUENA

- Goizeko 10etatik 12,30etara eta arratsaldeko 4retatik 7,30etara Iturrigorri Frontoian Gabonetako Parkea.

OHARRA:

-5etik 12 urtetara bitarteko haurrentzat Loramendi K.E.ko Ludoteka zabalduko da. Ordaina: 500 pzta. Informatzeko telefonoa: 77 09 70

ARETXAZOKA

Lana

- ✓ Masailari diplomatuek bere zerbitzuak eskaintzen ditu. Lehenengo kontsulta dohainik. Tfnoa: 78 24 35 (Juan)

- ✓ 21 urteko neska euskalduna, umeak zaintzeko edo zerbitzari bezala lan egiteko prest dago. Tfnoa: 79 87 40

- ✓ Mota guztietako lanak ordenagailuz pasatzen dira. Interesatuak deitu 79 77 59 telefonora (Fernando).

Etxebizitza

- ✓ Arrasaten neska bat behar dugu pisua osatzeko. Prezioa: 9.500 pzta. Deitu 79 70 77 telefonora (Aintzane).

- ✓ Erdi jantzitako solairua salgai dago San Migel auzoan. Interesatuak deitu 79 76 72 telefonora.

- ✓ Bi ikasle pisu txiki bat alokatzeko beharrea aurkitzen dira. Interesatuak deitu 79 91 28 telefonora (Susana). Astegunetan, 8etatik aurrera.

Salerosketak

- ✓ Garaje bat salgai dago Andra Mari Zuri auzoan. Interesatuak deitu 79 68 35 telefonora.

- ✓ Eskoriatzan garajeak dauka salgai. Interesatuak telefono hauetara deitu dezakete:


79 16 05 (Kontxi)

79 43 73

71 47 27

71 41 51

71 47 14 (12.30etatik aurrera)



ARRASATE KIROLAK-EK
GOGOKOEN DUZUN
PAISAIA AURKITZEN
LAGUNTZEN DIZU

ARRASATE KIROLAK, KIROL ALPINOETAN
BEREIZTEN DEN DENDA

Ondo jaztea eta gainera eroso
joatea gustatzen bazaizu...



Zugandik hurbil eta
harrituko zaituen prezioekin



San Andresen, autobus geltoki ondoan
Araba Etorbidea, 18. Tfnoa: 77 14 86 ARRASATE